



58. EUSKAL SOZIOMETROA: KULTURA DEMOKRATIKOA (2015ko ekaina) Prensa oharra

SARRERA

58. Euskal Soziometro honen gai nagusia Kultura Demokratikoa izan da; parte hartze politikoa eta jarrera eta balio politikoak. Landa-lana 2015eko apirilaren 22tik 29ra bitartean egin zen.

EGOERAREN BALORAZIOA

Egoera ekonomikoaren pertzepzioa apur bat hobetu da, baina txarra izaten jarraitzen du

Euskadiko egoera ekonomikoaren pertzepzioa hobetu egin da azken neurketekiko, baina oraindik ere egoera txarra edo oso txarra dela uste dutenak (%63) gehiago dira ona edo oso ona dela uste dutenak (%35) baino. Dena den, egoera ekonomikoa txarra edo oso txarra dela uste dutenak 2009-2010 urteetako portzentajeetatik behera egin dute lehen aldiz, orduan %66koa ziren.

Gainera, EAEko egoera ekonomikoaren pertzepzioa Estatuarena baino askoz hobea da.

Egoera politikoari dagokionez, herritarren iritzia zaituago dago, kasu honetan ere txarra dela uste dutenak gehiago diren arren: %53ren iritziz txarra edo oso txarra da eta %37ren ustez ona edo oso ona.

Lan-merkatuarekin lotutako arazoak (%80k aipatu ditu hiru arazo nagusien artean) dira EAEko biztanleak gehien kezkatzen dituenak berriz ere. Maila dezente apalagoan, arazo ekonomikoak (%17k) eta egoera politikoa eta gatazka politikoa aipatzen dira (%15k).

EAE eta Estatuaren artean desberdintasuna nabaria da ustelkeria eta iruzurrak arazo nagusien artean duen pisuan. EAEn herritarren %9ren ustez hiru arazo garrantzitsuenen artean aurkitzen da, aldiz Estatuan %49k du uste hori (CISen datuen arabera).

KULTURA DEMOKRATIKOA

Auzoa edo komunitatea hobetzeko gauzak egitea ez dago herritarren lehentasunen artean

Euskadiko hamar biztanletatik sei pozik daude bere bizitzarekin (%59). Erdiek espero dute urtebete barru bere egoera berdina izango dela eta %34k hobea izango dela. Gainera, gehienek uste dute badutela euren bizitzaren gaineko nolabaiteko aukeraketa eta kontrol tarte (6,5ekoa, 0tik 10erako eskalan).

Dudarik gabe, familia eta bikotearekiko harremana dira Euskadiko biztanleen bizitzako lehentasun nagusia (%86k eta %71k oso garrantzitsutzat jo dituzte esparru horiek, hurrenez hurren). Ondoren datoz lanarekin zerikusia duten kontuak, gaitasun maila ona izatea (%61) eta lanean arrakasta izatea (%55). Dezente garrantzi gutxiago eman diote auzoa edo komunitatea hobetzeko gauzak egiteari (oso garrantzitsua da hori elkarrizketatutakoen %27rentzat).

Gizarte-balio eta portaeren onarpenari dagokionez, jarrera irekienak ondoko gaien ingurukoak izan dira: *Sexu bereko pertsonen arteko ezkontza* (onargarria dela deritzote %77k) eta *abortu libre eta borondatezkoa* (%66k), baita *berak eskatuta gaixo sendaezinari hiltzen laguntzea* (%66) ere. Aldiz, ondoko jokabideak biztanleen %70ek baino gehiagok errefusatu dituzte: *Idea politiko edo erlijiosoak indarraren bidez defendatzea* (%87), *ogasunari ez aitortzea diru-sarrerara guztiak edo fakturen BEZa* (%79), *delitu bat ikusitakoan ez salatzea* (%77) eta *heriotza zigorra* (%71). Iritziak banatuago agertu dira *porroak erretzeari* (%44k ez dela onargarria uste dute eta %30ek baietz) eta *bizitza osorako espetxe zigorrari* buruz (%44k ez dela onargarria, eta %24k baietz).

Gehiengoak (%78) sistema demokratikoaren alde egin dute, baina biztanleen erdiek baino ez dute adierazi pozik daudela egun Euskadin demokraziak duen funtzionamenduarekin (%50), eta askoz gutxiago agertu dira pozik Espainiako demokraziaren funtzionamenduarekin (%22).

Arduradun politikoei bereziki eskatzen zaiena zintzotasuna da

Politikarekiko nagusitzen den sentimendua konfiantzarik eza da oraindik ere, elkarrizketatutako hamar pertsonatetik ia seik hala adierazi dute (%57). Ondoren, nagusitzen direnak dira haserrea (%31), asperdura (%31) eta axolagabekeria (%25). Soilik %18k adierazi dute interesa dela nagusitzen zaien sentimendua, eta %16k konpromisoa (hala ere azken portzentaje hau handitu egin da azken urteotan; 2012an %9koa zen).

Nabarmendu behar da dezente handitu dela *herritarren interesen alde lan egiten duten politikariak badirela* uste dutenen portzentajea (2012an %61 ziren eta egun %72). Bestetik, hamarretik zazpi inguruk politikarekiko interes gutxi edo batere interesik ez dutela adierazi dute (%68). Haatik, mesfidantza hori, politika orokorrarekiko baino, politikan



jarduten direnekiko dela dirudi, politikariekiko eta alderdi politikoez: hots, %74 dira *boterean bat edo beste egon, beti euren interes pertsonalak bilatzen dituzte* adierazpenarekin ados agertu direnak, eta %64k uste dute *benetan alderdi guztiak berdinak direla*.

Biztanleen %82k uste dute zintzotasuna dela politikari batek izan dezakeen balio garrantzitsuena. Aipatutako gainerako balioen oso gaineratik dago portzentaje hori: prestakuntza izatea garrantzitsua da %32rentzat, jendearekiko hurbiltasuna %26rentzat eta eraginkortasuna %22rentzat.

Herritarrek uste dute ustelkeria dezente gutxiago dagoela Euskadin Espainiako Estatuan baino. Euskadin oso zabaldua dagoela uste dutenak %10 dira, Europar Batasuneko batz bestekoa %35koa da eta, aldiz, %65 dira Espainiako Estatuan ustelkeria oso zabaldua dagoela uste dutenak; azken bi datu hauek Eurobarometer-enak dira.

Politikak eragiten duen konfiantzarik eza dena delakoa izanda, eta eragiten duen interesa txikia izanagatik, herritarren erdiek baino gehiagok adierazi dute eguneroko politikako gaiez oso edo nahikoa informatuak daudela (%51). Eta azken urteotan handitu egin da politikaz hitz egiten dutela diotenen portzentajea.

Biztanleen erdia prest agertu da gai publikoetan parte hartzeko

Biztanleen erdiek baino gehiagok (%56k) azken urtebetean parte hartu dute galdetutako ekintza politiko edo sozialetakoren batean: %35ek eskaera aldarrikatzailearen bat sinatu dute, %28k baimendutako manifestazioren batean parte hartu dute, %23k grebaren batean parte hartu dute, etab. Parte hartu dutenen portzentajea 2012koa baino zertxobait handiagoa da (%54) eta 2010ekoa baina dezente handiagoa (%45).

Mota ezberdinetako talde eta elkarteetako kide izateari eta parte hartzeari dagokionez, %37k diote aktiboki parte hartzen dutela elkarte edo talderen batean, aldiz, %26 ez dira inoiz kide izan. Gainerakoetatik, %10 kide dira baina ez dute parte hartzen, eta %26 iraganean kide izan dira baina orain ez. Elkarte edo talde hauetan parte hartzen du gehien jendeak: kirol taldeak (%37 kide da edo inoiz izan da), kultur edo aisialdiko elkarteak (%30), sindikatu edo enpresari elkarteak (%24) eta gizarte laguntza edo giza eskubideen inguruko elkarteak (%22).

Biztanleen erdiak prest agertu dira bere denbora librearen zati bat gai publikoetan parte hartzen emateko, %29k baldintzarik gabe eta %21ek soilik ahalgaitasun handirik suposatuko ez balie. Aldiz, %46 ez leudeke prest inolaz ere parte hartzeko. Parte ez hartzeko arrazoi nagusienak: interes falta (%31), denbora librea beste gauza batzuetan erabiltzea nahiago izatea (%25) edo denborarik ez izatea (%23).

Iñigo Urkullu lehendakaria da 5eko mugara iristen den buruzagi bakarra

Alderdi politikoen balorazioa apur bat igo da aurreko neurketarekiko, Podemos-Ahal dugu, UPD eta PPrena izan ezik. EAJ izan da balorazio altuena izan duen alderdia (4,5), ondoren datoz Podemos-Ahal dugu (3,9), EHBildu (3,5), IU-Ezker Anitza (3,2), PSE (3,1) Ciudadanos (3,0) eta UPD (1,7), eta PPK (1,3) jaso du baloraziorik txarrena.

Iñigo Urkullu lehendakaria izan da 5eko mugara iritsi den euskal buruzagi bakarra (5a jaso du, 0tik 10erako eskalan). Atzetik datoz Hasier Arraiz (4,6), Andoni Ortuzar (4,3), Idoia Mendia (3,9), Arantza Quiroga (2,4) eta Gorka Maneiro (2,1).

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 2.170 lagunek osatua da. Elkarrizketak aurrez-aurre egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 2,1$ ekoa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2015eko apirilaren 22a eta 29a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.net/ikerketa_soziologikoak

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 18an